

**LAB****Administrazioak  
eta Osasun arloak****Informazio sindikala**  
**Informatzen****2006ko  
otsaila**estatus politikoa  
**Orain**

# Mahai orokorra

## Gasteizko gobernuak muzin egiten die langileen eskaerei

Mahai Orokorrean Baskongadetako Administrazioiko, Irakaskuntzako eta Osakidetzako langileengan eragina duten gaiak negoziatzen dira. Beraz, garrantzi goreneko mahaia da, han landu beharko liratekeen gaiak errepikatzen badiegu behintzat (35 orduko lanastea foro honetan lortu zela gogoratu behar dugu). Izan ere, badira lan esparruko hainbat gai, eduki ekonomikoa dutenak barne, Gobernuak berak onartu behar dituenak, eta, hain zuzen ere, horrexegatik daude exekutiboaren alde ezberdinak negoziatzeak zuzenean ordezkaturik bertan. Horra hor bere garrantzia.

Mahai horretan heldu behar dio Gobernuak (PNV, EA, IU) lehenetsuna duten hainbat gai, hala nola, pribatizazioak, prekaritatea, euskalduntzea, eta plantilen gaztetzea. Baina hirukoaren Gobernu honek lansarien igoera baino ez du eztabaidatu nahi mahaian, eta gaia bera ere, hein handi batean, estatuaren aurrekontuen eta Madrilgo marko legalaren pean kokatuta.

Gauzak horrela, Mahai Orokorraren azken deialdian, Administrazioaren jarreraren aurrean, sindikatu guztiok bilera bertan behera uztea erabaki genuen, ondoren gure artean bildu eta egoera honen aurrean ze ekimen bultzatu aztertzeke. Sindikatuen arteko bilera otsailaren 9an egin zen eta ELAk, gehiengo duen sindikatuak, Mahai Orokorraren esparruan mobilizaziorik edo presiorik egiteko prest ez zegoela planteatu zuen, eta bere aldarrikapenak mahai sektorialetara bideratuko zituela.

**LABen ustez, Mahai Orokorra Administrazioiko langileen lan harremanetarako benetako marko erabakitzailea dela izanik, ELAk mahai horren esparruaren mailan ezer egiteari uko egitea Gobernuaren menpe gauden langile guztion erantzun orokor eta bateratua bideratzeari uko egitea da. Egoera hau ulertezina izateaz gain, gehiengo duen sindikatu honek, langileen interesen defentsa eta borroka baino, bere interes propioak lehenesten dituela**

**pentsarazten digu, Eusko Jaurlaritzari bere irizpide eta negoziazio-eredu alderdikoiak ezar ditzan uzten diolarik; ondorioz, Gobernuak inposatu lezakeen edozein dekretu edo akordio deialde ateratzen zaio.**

Administrazioan, gero eta zerbitzu publiko gehiago ari dira pribatizatzen, prekaritatea areagotzen, gure erosteko almena gutxitzen, langileen batezbesteko adinak eten gabe gora egiten duen bitartean. Behar-beharrezkoak dira plantilak gaztetzeko planak, lan kargak lanpostu gehiago sortzea eskatzen dute, euskalduntze planek bultzada bat behar dute sektorea euskaldunduko bada. Erronka hauei aurre egiteko diru-partidak, soldata igoera juxtu batek behar dituenak barne, ez dira lortuko baldin eta ez badira Mahai Orokorrean adosten. Ondorioz mahai hau marko egokia ez dela esatea, burua lurpean sartzea bezala da, horrela arazoa desagertuko delakoan.

Hau guztia gertatzen ari den bitartean, Ibarretzek, Madrazok eta Azkarragak, ez dute inolako "lotsarik" elkarriketa sozialaz hitz egiteko, euren dagokien esparru hurbilean, Administrazioiko langileekiko harremanetan alegia, langileen eskaerei muzin egiten dieten bitartean, dekretuak inposatuz eta inongo jarrera negoziatzaile erakutsi gabe. LAB sindikatuarentzat, hau da mobilizaziorako une aproposa Gobernuak bere jarrera alda dezan.

LABen ustez, EAEko Mahai Orokorrak bere funtzioa bete behar du, Administrazioiko langileen lan baldintzak negoziatzeko markoa izan behar du, Madril begira egon gabe, bere jardura eztabaidan eta akordioetan oinarrituz. Hori dela eta, LABek bere esku dauden bitarteko guztiekin salatuko du Gobernuaren jarrera eta ahaleginak egingo ditu ahalbait arinen sindikatuen erantzun bateratu bat lortzeko. Gauzak horrela, Gobernuko langile guztiok gurekin bat egitera animatzen zaituztegu gure eskubi-deen eta benetako negoziazio baten defentsan.